

UrbanEñe 2026

MUSIKA-DEIALDIA

fundación  sgae fundazioa



SGAE Fundazioak UrbanEñe ekimena jarri du abian, hirugarrenegoz. Helburua da SGAEko kide diren egileen musika urbanoa nazioartekotzea. **Kanaria Handian izango da 2026ko uztailaren 2tik 4ra, GRANCA LIVE FEST jaialdiaren barruan.**

Hori dela eta, **SGAE Fundazioak** deialdi publikoa egiten die honako hauei:

- SGAEko kide diren musika-sektoreko egile guztiei.
- Musika urbanoa egiten duten taldeei, nahiz eta SGAEko kide den egilerik ez izan, baldin eta SGAEen erregistratutako errepertorioa baliatzen badute. Taldean gehienez hiru (3) lagun dituztenak onartuko dira bakarrik.

Hauek dira programaren helburuak: musika urbanoa zuzenean sustatzea; musika urbanoa jotzen duten taldeek jaialdietan parte har dezatela sustatzea; SGAEko kideentzat nazioarteko birak sustatzea; eta sektorean diharduten bertako nahiz mundu osoko profesionalek (egileak, artistak, managerrak, programatzaileak, jaialdi-zuzendariak, diskoetxeak, eta abar), esperientziak eta ezagutza trukatzeko topaketak ahalbidetzea.

Hiru egunotan, musika urbanoa egiten duten egileek eta taldeek kontzertuak emango dituzte *showcase* formatuan, bertaratzen direnentzat. Entzuleen artean, gaur egun egiten den musika urbanoa ezagutzeko interesa duten nazioarteko jaialdietako zuzendari eta programatzaileak izango dira. Horrez gain, **SGAE Fundazioak** gonbidatuta, nazioarteko jaialdietan musika urbanoan diharduten, jaialdietako zuzendari eta programatzaileak bilduko dira egileen eta taldeen managerrekin. Aurten, kolaboratzaile ariko da GRANCA LIVE FEST jaialdia.

OINARRIAK

1. Eskatzaileak eta baldintzak

SGAE Fundazioak aurretik adierazitako soslaiak betetzen dituzten interesdun guztiei egiten die deialdia.

Inskripzioa honako hauek aurkez dezakete:

- SGAEko kide diren egileek, beren izenean eta eskubidez, edo ordezkatzan dituen erakundearen bidez. Erakunde horiek (*management* agentziak, musika editoreak, diskoetxeak eta abar) behar bezala akreditatuak egon beharko dute, eta eskaera musika urbanoa egiten duen autorearen eta/edo taldearen izenean eta ordezkaritza aurkeztuko dute.
- Musika urbanoa egiten duen taldeak berak, taldearen izenean ariko den kideetako baten bitartez, Jabetza Intelektualaren legearen 111. artikuluan datorren bezala. Halaber, aurkeztu daitezke ordezkatzan dituzten erakunde bidez, hala nola *management* agentziak, diskoetxeak, eta abar. Erakundeek behar bezala onetsiak egon beharko dute eta eskaera musika urbanoa egiten duen taldearen izenean aurkeztu beharko dute.

2. Eskaera eta dokumentazioa

Eskaerak gaztelaniaz aurkeztu beharko dira, SGAE Fundazioaren webgunean (www.fundacionsgae.org) horretarako egokitutako online sistemaren bitartez, honako dokumentazio honekin batera:

- Eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Eskatzailearen IFZ/AIZ/IFK/pasaportearen kopia, betiere indarrean dela.
- Enpresa eskatzailearen legezko ordezkari-tza egiaztatze eskriturak edo dokumentazioa, autorearen izenean edo izena ematen duen musika-taldearen izenean.
- Egilearen CVa edo musika urbanoa egiten duen taldearen ibilbidea. Bertan aipatuko dira aurreko lanak entzungai eta/edo ikusgai dituzten *online* plataformak. Proposatutako musika-taldeak bat etorri behar du UrbanEñen aurkeztekoa den proiektuekin. Proposamenean zehaztu beharko dira bai parte-hartzaile guztiak, bai interpretatzekoak diren erreperitorioak, eta bai partaidetza honekin nazioartekotu nahi den lan zehatza ere. Proposamenek, onargarriak izateko, gehienez 3 taldekide izan behar dituzte.
- Soinu-fitxategi bat, bere musikaren lagin batekin (MP3 formatua).
- Emanaldirako proposatutako riderra – kontsultatu online inprimakian emanaldirako eskura dauden baliabide teknikoak.
- Autoreak eta/edo musika-taldeko kide guztiek izenpetutako baimena. Haren bidez, SGAE Fundazioak haien datu pertsonalak erabiltzeko baimena izango du deialdi honetan parte hartzeko beharrezkoak diren gestio guztiak egiterakoan. Baimen hau derrigorrez aurkeztu beharko da. Aurkeztu ezean, eskaera automatikoki ezetsiko da.
- Bestelako dokumentazio gehigarri garrantzitsua (hautazkoa).

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 17an hasiko da eta 2026ko martxoaren 17ra arte egongo da zabalik.

3. Hautapen-prozesua

SGAE Fundazioak Ebaluazio Batzorde bat izendatuko du, kide hauekin osatuko dena: musika urbanoan espezializatutako sektoreko profesionalak eta programazioaren arloan dabilzan profesionalak bai eta kudeaketa kulturalera erakunde-ordezkariek nahiz profesionalak ere. Batzordeak UrbanEñen parte hartuko duten egile eta taldeak ebaluatu eta aukeratzeko ditu.

Hautetsien eta ordezkoen zerrenda bana egingo da (ordezkoena ez da argitaratuko), lehenengoek uko eginez gero, aukeraketa bermatzeko.

Behin eskaerak balioetsi eta puntuazio handiena lortu duten egile eta taldeak aukeratuta, eta ordezk egile eta taldeak aukeratuta, Antolakuntza Batzordea aurrez hautatutako egile eta taldeekin jarriko da harremanetan, UrbanEñe egingo den egunetan eta lekuetan horien partaidetza egiaztatu, berretsi eta ziurtatze aldera.

Hautatuen artean parte hartzerik ez duen inor balego, ordezk gisa hautatutako egile eta/edo taldeekin harremanetan jarriko da Ebaluazio Batzordea.

Batzordearen ebazpena apelaezina izango da, eta 2026ko apirilera hilean argitaratuko da.

Antolatzaileak hautatutakoen behin betiko ebazpena argitaratzen duen egunetik UrbanEñe ospatzen den egunera arte, hautatutako taldeek zerrenda aurkeztu beharko dute kide den artista bakoitzaren datuak jasotzen dituen, haien emanaldiaren kontratuak prestatze aldera.

4. Ebaluazio irizpideak

Batzordeak hautagaien gaitasun artistikoak ebaluatuko ditu haien CV eta taldearen ibilbidean nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioan oinarrituta. Hala, proiektuaren originaltasuna, sormena eta bideragarritasuna balioetsiko ditu.

5. SGAE Fundazioaren betebeharrak

SGAE Fundazioak, zuzenean edo kolaboratzaileen bitartez, honako hauek hartuko ditu bere gain:

- Hautatutako egile bakoitzaren eta hautatutako taldeetako kide bakoitzaren bidaia, bai eta ostatu-gastuak eta kudeaketa.
- Kontzertuen kudeaketa eta ekoizpen-gastuak.
- SGAE Fundazioak 200 € gordin ordainduko dizkio hautatutako SGAEko kide den egile bakoitzari eta hautatutako taldeetako kide bakoitzari, emanaldia eskaintzeagatik. Horretarako, dagokien lan-kontratua sinatu beharko dute artisten erregimen berezian.

6. Arau orokorrak

- Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa erantzukizun orotatik salbuesten dute, baldin eta aurkeztutako lanek plagiorik edota Espainian indarrean dagoen jabetza intelektualaren arloko lege-urraketak egingo balute.
- Deialdi honetara aurkeztu diren heinean, partaide diren egile eta musika-taldeek osoki onartzen dituzte honako oinarri hauek.
- Deialdi honen ondorioz, SGAE Fundazioak ez du hartzen proiektu honen garapenari lotutako erantzukizunik, ez zuzenik ez bigarren mailakorik, baldin eta honako agiri honetan zehaztu ez bada.
- Erreklamaziorik edo gatazkarik egonez gero, Madrilgo hiriburuko (Espainia) auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira bai parte-hartzaileak, bai proiektuaren antolatzaileak.

7. Konfidentzialtasun-betebeharra eta datu pertsonalen babesa

Deialdia kudeatzeko eskatzaileek emango duten informazio guztia konfidentziala izango da.

Eskatzaileek euren borondatez emandako datuak SGAE Fundazioaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira, eta deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko soilik erabiliko dira. Datu pertsonalen babeserako oinarriko eskubidearen jabeak eskubidea du datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta uko egiteko baita tratamendua mugatzeko eskubidea, eramangarritasun-eskubidea eta erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea ere. Eskubideak gauzatzeko hona idatz dezakezu: SGAE Fundazioa, Zerbitzu Juridikoentzako, Bárbara de Braganza, 7, 28004, Madril. Idazkian izena eta abizenak adierazi beharko dira, baita gauzatu nahi duen eskubidea zein den eta eskubide hori gauzatzeko arrazoia ere. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat eta gaur egungotzat hartuko ditu. Datuetan aldaketarik izanez gero, interesdunak berehala jakinarazi behar du.

Informazio gehiago:

informacion@fundacionsgae.org

Antolatzailea:

fundación  sgae fundazioa

Kolaboratzaileak:

